

TOKIKOM

Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria • 2015eko urria • 308. alea



Aztarna bila

EGOTZA

Ahuntz esne gordinez egindako gazta

Nagore Martin Ugarte
Egotza Baserria, Soraluze

Salmenta zuzena:
615 763 062



**TXURRUKA
JATETXEA**

www.txurruka.com
943 75 15 81



**TXURITXU
GOZOTEGIA**

Tel. 943 75 24 43

Pastel eta gosari goxuenak
dastatzeko lekurik onena

Etzera banaketak
egiten dira



Elizpe
Hortz klinika

Gare zerbitzuak:

- Ortodontzia ilustrotua
- Implantak

OSASUNERAKO BERRIKUNTZAK
FINANTZARIETAN ZURE INFLUENTZIA
KONPROBANDURAK GAREKO AURERAKONTUA

MUTUALIA, PADI (Inaurren arretarako hortz programa)

Tel. 943 75 25 67
Elizburu, 3 beheko Soraluze



TRISKEL

Herboristeria Parafarmazia Dietetika

Ordutegia

Astlehenetik ostiralera:	Larunbatetarako:	Telefona
09:00-13:30 / 16:30-20:30	10:00-13:00	943 50 78 50


Euskalzaletasunaren alde:





**DANOK
IN**

GO!

PARTE-HARTZE PROZESUA

 Urriak 30, azaroak 13 eta 27
barixakuak

 18:00 - 21:00

 Antzokian

**PIL-PILEAN
EUSKALTZALEEN
TOPAGUNE BIHURTZEKO
BIDEAN**

Zahartzaro aktiboa

Bapatean, udazken goiz batez, ispilua-
ren aurrean jarri eta gure aurpegi fi-
nean zimur bat ageri dela konturatzen
gara. Hurrengo egunean berdina eta
hurrengoan. Ahaleginak egiten ditugu
gure zimur dotore eta paregabe horiek
desager daitezen, baina agertzen zaiz-
kigu gorputz guztian gero eta gehiago,
loreak lurretik erne ohi diren moduan,
baina desberdintasun batekin, zimurrak
geurekin geldituko direla betirako. Gure
baitan zeozer pasatzen ari denaren sei-
nalea dira, bizitzaren prosezua aurrera
doala. Harro behar genuke hortaz.

Sortu dira dagoeneko bizitzaren mara-
toian aurrenengo doazenendako pro-
grama batzuk eta badago horien artean
gaur egun pil-pilean dagoen bat: “za-
hartzaro aktiboa”. Helburua, gutxi go-
ra-behera, pertsona edadetuei aukera
desberdinak eskaintzea da, euren egu-
nerokotasunean hobeto bizi eta etorki-
zunean hobeto sentitu daitezen. Baina
badaude programa horien barruan pare
bat gauza gustatzen ez zaizkidanak. Ba-
tetik, “zahar” berba. Pertsona bat ez dute
urteek bihurtzen “zahar”, bizipenek bai-
zik. Bestetik, esan behar dut programa
orokorren kontra nagoela, batez ere
pertsonei zuzendutakoak direnean. He-
rri bakoitza desberdina da eta bertako
herritarren zaletasunak eta kultura des-



Juan Fernandez

**“Zimurrak poliki-poliki
azaleratuko dira eta
komeni da gertu egotea,
gizakiaren prozesua
normaltasunez hartzeko
eta topera bizitzeko”**



P.G.

berdinak dira, beraz, nere iritziz, parte
hartzailleek erabaki beharko lukete zein
motatako programak jarraitu nahi li-
tuzketen. Interesa eta gogoia dutenen
berba eta pentsamenduz osatutako pro-
grama, ez Gasteizko, Bilboko edo Donos-
tiako bulego batetik datozen ideia orokor
batzuk.

Azken urteotan hasita gaude adineko
pertsonei buruz berba egiten, bereziki,
gero eta adineko pertsona gehiago dau-
delako herrian. Itsuen moduan gabiltza
kalean, arazoa etxean bertan daukagula
jakin gabe. Gazteok heldu arora iritsi aha-
la, gure gurasoak aurrera doaz bizitzaren
zikloan eta zer esan gure aiton-amonei
buruz. Ezagutzen ditugu edadeak egu-
nerokoan ekarri dizkieten oztopoak? Ezin
dugu beste aldera begiratu, hau guztion
lana da eta pentsatzen dut etxean ber-
ba egin beharreko gaia dela. Zimurrak
poliki-poliki azaleratuko dira eta kome-
ni da gertu egotea, gizakiaren prozesua
normaltasunez hartzeko eta topera bi-
zitzeko.

Guztion ardura da egoera honi buelta
ematea. Gorde dezagun zahar berba
gure antzinako hiztegiaren eta goazen ka-
lera errealitatez blaitzera. Amama batek
esan zidan moduan: “ez gara zaharrak,
zaharrak trapuak dira”.



GENERALI

Montserrat Martinez Mugica
Agente Eskusiboa
Erregistro zenb.: C007272446209G
Tel.: 677895110
montserrat.martinez@generalimedadores.es

Denentzako aseguruak

- Autoa
- Ebea
- Istripuak
- Autonomoen subsideia
- Bizitza
- Heriotza
- Aurrezkia



**TXOKO
KAFETEGIA**

Kalebarreneko kale kantoian

**Elkartzen
gaituen
txokoa**

Tel. 943 75 17 89

Gutunak

Aidor Aizpuru Soraluzeko euskeraren gainbehera

Frankismo garaian jasandako errepresioak eta ondorengo urteetan kulturalki herri honek jasan zuen zapalkuntzak ondorio latzak eragin arren gure hizkuntzak eta kulturak aurrera egitea lortu zuten kultur inposaketa eta euskeraren debekuntza legeen itzalpean. 60-70 hamarkadetan gure hizkuntzak eta hizkuntza hori zabaldu nahi zuen euskal hezkuntzak bizia hartu zuten ikastolen eta hauei loturiko elkarten bitartez, herri hontako biztanle ugari egindako lanari esker.

Hamarkadetan zehar egoera gogorak jasan behar izan zituen euskal hezkuntza indarra hartzen joan zen, Soraluzen gertatu zen bezala. Haurren hezkuntzak kalitate eta gurasoengandiko konfidantza bereganatu zituen eta ikasle kopurua gehitu.

Azken urteotan euskarak hamarkadetakoa lan etengabiarri esker bereganatu zuen indarra ahuldu egin da. Nahikoa da herriko edozein gunetan ume talderen bati adi entzutea.

Kalean jolasean diharduen ia ume bakar bat ere ez duzu entzungo euskaraz lagunekin eta entzuten duzunean momentu puntaletan izango da. Ama-hizkuntza euskara izan arren, azkenaldian herriko euskaldunen artean gaztelania nabari da hizkuntza erabiliena moduan. Gai honen inguruan hainbat irakasle eta gurasorekin berba egiteko aukera izan dut, guztiak arduratuta eta burumakur azaltzen dira. Askok aurreko hezkuntza-eredua zeukaten arazoari aurre egiteko baliabide moduan.

Zela edo hala, gure hizkuntzaren higadura saihestu beharra dago guztion laguntzaren bitartez, gure ondorengoei helduarazteko asmoa baldin badugu behintzat.



Bittartetik



Arianne Uramuno

Zaintza gerra denporan

Gerra garaia entzundakoan soldaduak eta gudariak datozkigu gogora, batailak. Haietan ere izan zen emakumerik; baziren trintxerak egiten aritu ziren andra soraluzetarrak, baita pilotutarako prestakuntza egin zutenak ere. Baina soldaduen arteko batailez gain, "H" nagusiz idatzitako historiak bestelako batailak ezkutuan laga ditu. Bonba eta tiro artean gertukoen bizitzak zaintzeko ardura ez da gutxietsi daitekeen zeregina. Be-reziki andreketen zuten funtzioa izan zen zaintzarena, gerra sasoiaren ere.

Soraluzeko andrak berehala antolatu ziren milizianoentzat (eta gero gudari-entzat ere bai) arropak egiteko (buzoak, jertseak, galtzerdiak...) eta janaria prestatzeko. Gaixoak eta zaurituak zaindu zituzten ospitaleetan. Presoak bisitatu zituzten eta arropa eta janaria eraman zieten. Alaba edo lagunei ilea moztu eta kalean erabil zitzaten eragotzi zuten. Familia eta lagun-sareak (gudari, soldadu, preso eta erbestera-tuak ere bai) harremanetan mantendu zituzten. Eta abar luze bat, arduraz eta adoretz egindakoak denak.

Emakume haiek (hauek, bizirik baitaude batzuk oraindik) egindako zaintza-lanak salbatu zuten bizi bat baino gehiago, eta sufrimendu izugarri hura guztia ahal zen neurrian arindu ere bai. Eta gaur egun, antzeko parezido.

<p>Kiru Muntalak</p> <p>943 76 99 85</p> <p>kirumuntalak@yahoo.es</p> <p>www.kmdesign.es</p>	<p>Pol. Amilaga 5</p> <p>BERGARA</p> <p>Tel. 943 76 99 85</p>	<p>■ Diseinu eta Fabrikazio lanak</p> <p>Sukaldeak</p> <p>Horma-armairuak</p> <p>Logelak</p> <p>Zoruak</p> <p>Ateak...</p>
		<p>■ Arotzeria</p> <p>lanak oro har</p> <p>■ Instalazioak</p>

“Historiaurrea ezagutzeko museoa da mendigainekoa”

Manu Zeberio

Historiaurreko arkeologia saileko zuzendaria Aranzadi elkartearen



Manu Zeberio.

Manu Zeberio buru dutela, Aranzadi elkartearen hiru kideek katak egiten dihardute mendigainean. Egiten dihardutenaren eta etorkizunean egin nahi dutenaren inguruan galdetu diegu.

Zertan diharduzue aurten mendigainean?

Aurten zundaketak egiten ari gara, aztarren berriak bilatzeko helburuarekin eta megalito berri bat aurkitu dugu. Orain dela urte batzuk, Atxolin Txiki tumuluaren ondoan beste megalito bat zegoela esan ziguten eta guk egitura hori ikertu dugu eta bertan zista bat dagoela baieztatu dugu.

“Atxolin Txiki tumuluaren ondoko harrietan zista bat aurkitu dugu”

Zer da zista?

Trikuharrien moduko itxura dute baina tamainaz txikiagoak dira. Hilobiaren ganbarara funtzioa zuen monumentu megalitikoak dira baina tamainaz trikuharria baino txikiagoak. Trikuharriak zaharragoak dira, neolito garaikoak (6.000 urte k.a.); zistak ordea, brontze arokoak (3000-4000 urte k.a.).

Zein helbururekin egiten dituzue katak?

Garaiko herrixken aztarnak bilatzen ditugu, orduko gizakiek erabiltzen zituzten erremintak, gizakiak ezarritako harri multzoak, zeramika... momentuz ez da

ezer azaldu baina inguruko aurkikuntzek zein inguruak berak erakusten digu leku hau leku sinbolikoa izan zela. Gainera orain dela gutxi berreskuratu zen zutarriaren harri oso antzekoak dira hemen dauden harriak.

Zelakoa da orain artean aurkitu denaren balioa?

Gipuzkoan 300 monumentu megalitiko inguru daude eta Elosua-Plazentzia gunean ia 20 aurkitu dira honezkerok. Ez dira Gipuzkoako aztarna handienak ezta garrantzitsuenak ere, baina bai oso interesgarriak. Nahiz eta txikiak izan, megalito asko dago, eta garai desberdinetakoak: Neolito, Kalkolito eta Brontze Aroko trikuharriak, tumuloak, zistak eta zutarriak. Gure historiaurrea ezagutzeko “museo” aproposa da mendigainekoa.

“Elosua-Plazentzia ez da garrantzitsuena baina oso interesgarria da”

Pareko adibideak zein izan daitezke?

Beste leku batzuetan ere badira megalito multzoak: Aralarren, Jaizkibelen, Beasainen... baina Karakate-lurkurutzetakoak asko dira eta ilaran daude, aproposak dira ibilaldi batean ikusteko.

Ondarea aztertu eta ezagutarazteak zein onura ekar diezaiokete herriari?

Estazio megalitikoan aurkitzen diren monumentuak jende guztiaren ondarea dira.

Gure iraganaren aztarnak gure etorkizunerako aberastasuna dira. Gure ondarea guk geuk ondo ezagutzeko balio du. Bestalde, gure ondareak (natural eta kulturalak) onura ekonomikoa ekar dezake.

Azken urteotan ze azterlan egin dituzue mendigainean?

“Keixetako trikuharria berreraiki nahi genuke etorkizunean”

2013. Urtean Arribiribilletan abiatu genuen indusketa arkeologikoa. Zutarria zela baieztatu genuen eta berreraiki.

luz indusketa arkeologikoa bat egin genuen “Keixetako Egiya Hegoa” trikuharria (Elosuko lurrekin mugan). Aranzadik, Barandiaranek eta Egurenak industria zuten lehenago (1922an) eta megalitoaren gaur eguneko egoera eta geratzen diren aztarnak aztertzea izan da gure helburua.

Etorkizunean zer egiteko asmoa duzue?

Keixetako trikuharriarekin Arribilletan egin genuen gauza bera egitea da asmoa: berreraikitzea. Proiektu akitekonoa aurten egingo dugu eta hori burutzeko erakunde publikoek baliabideak ipiniko dituzten jakiteko zain gaude. Datorren urteetarako ikerketa proiektua mantentzea espero dugu, megalito berriak aurkitzeko eta megalitoak eraiki zituen jendearen bizilekuen aztarnak bilatzeko.



Gauetan herria zaintzeko eskatu diote Ertzaintzari



Ertzainak Mendarako lapurreta aztertzen.

Irailetik hona hiru lapurreta gertatu dira herriaren erdialdean. Irailaren 10ean Batzokian sartu ziren lapurrak eta gau berean Txokoan sartzen ere ahalegindu ziren; urriaren 23an Mendata tabernan eta bost egun beranduago, urriaren 28an,

Goiara lurrindan egin dute lapurretan. Lapurreta guztiak gauetz gertatu dira eta jasan dituzten merkatariek gauetz herria zaindu dezaten neurriak hartzeko eskatu diote Udalari eta Ertzaintzari. Lapurrek, guztira, 4.000 eurotik gorako dirutza eskuratu dute.

Ertzainburuarekin bilera

Alkateak jakinarazi digunez, herrian eskumena duen Bergarako komisaldegiko ertzainburuari dagoeneko eskatu dio gauetako zaintza areagotzeko: "Mendatan izandako lapurretaren ostean berba egin nuen ertzainburuarekin eta adierazi nion beharrezkoa dela gaueko 01:00etatik goizeko 05:00ak bitartean herria zaintzea. Bilera egitekotan gaude eta joan zen astean herrira sartzeko mandoak entregatu genizkien ertzainei".

Omenaldia odol-emaileei

Joan zen zapatuan, urriaren 24an, Eibarko *Restaurante Unzaga Plazan*, 25, 40 eta 50 aldiz bere odola eman duten soraluzetarrak omenduko zituzten: (25) Aitor Gil Elorza, (40) Itziar Gantxegi, (50) Pedro M. Alberdi, Jesus Juan Benito, Juan M. Badiola eta Jose Luis Lasa.

Osasun arreta-gunea eraiki dute Haitin

Dumond Theodule apaiz haitiarrak herrialdeak bizi duen egoeraren inguruko berri eman zuen joan zen egunean kaperan eskaini zuen hitzaldian. Soraluzeko misio-taldeak bidalitako diruarekin 24 orduan osasun arreta eskaintzen duen gunea eraiki dutela jakinarazi zuen.

Ustelkeria nagusi dela eta gobernu kanpoko erakundeetatik bidaltzen den dirua apenas heltzen dela adierazi zuen, Misiolarien bitartez bidaltzen dena berriz zuzenean heltzen dela azpimarratu zuen.

FotoNotizia



Auzoko egitasmoa martxan

Herritar asko hurreratu ziren Auzoko egitasmoaren aurkezpen ekitaldira. Euskaraz ez dakiten herritarrak euskararen komunitatera hurreratzea da Pil-pileanek Udalaren eta Aldundiaren laguntzarekin martxan jarri duen egitasmoaren helburua. Bi taldetan banatuta batzen dira astean ordu t'erdiz: martitzenetan 15:00etatik 16:30era (elkartegian) eta eguenetan 18:30etik 20:00etara (antzokian).



Euskara sustatzeko hitzarmena

Soraluze futbol taldeak bere jardunean euskara sustatzeko hitzarmena sinatu du Udalarekin. Klubak egunerokotasunean euskararen erabilera indartzeko konpromezuak hartu ditu: barne funtzionamenduan eta kanpo jardueretan euskara erabiliko du, futbol eskolako entrenatzaileak "euskara oinarritik" egitasmoan trebatuko dira eta entrenatzaileek euskaraz jarduteko gaitasuna izan beharko dute. Udalak emango dizkion laguntzen kopuru osotik % 30 gordeko du (3.000 euro) goian aipatutako konpromisoetara bideratzeko.

Etxabe Harategia

Euskal txabalkia Bildotsa

Merkatu Plaza 6 - 7 Postuak
T. 943 75 23 75

Nerea Gabilondo
Telf.: 943 75 12 63

negabi
Itzapaindegia

Santa Ana kalea, 9
SORALUZE

Pentsio publiko duinak eskatzeko elkarretaratzea

Urriaren 2an, Nagusien nazioarteko egunean, hirurogeitamarren bat lagun batu ziren Plaza Berrian "Pentsio publikoen defentsan" lemarekin egin zuten elkarretaratzea. Gutxieneko pentsioak 1.080 eurokoa behar lukeela aldarrikatu zuten. Itxaropena jubilatuen elkarteak bat egin zuten Agijupens, Nagusilan, Duintasuna, FEVAAS, GEPE, Helduak adi! eta Helduen hitza erakundeek egindako deialdi orokorrenekin.



Legardetako lurra apurtu dute

Baimenik gabe bizikletan ibiltzeko pista bat egin dute Argateburu ondoan. Bizikletarekin saltoak egiteko mendiko arriak kendu eta behorrek menditik ez jausteko ipinita zituzten egurrak arrien gainean jarri dituzte. Mendiko bideko lurra altxatu dute bihurtzeko hartzeko eta lursailaren ureztapena oztopatu dute. Erabiliko herramintak udaltzaingoak proba modura eraman ditu. Julian eta Martin Ezenarro anaiak dira lurarren jabeak.



Udal-tasak eta hirigintza plana aho batez onartu dira

Datorren urteko udal-zergak eta hirigintza plan orokorra izan dira urriko bi udalbatzarretan onartu diren bi egitasmo nagusiek. Biak aho batez onartu dira. Datorren urterako udal-tasak bere horretan izoztea erabaki du udalbatzarrak, zaborreri dagozkienak izan ezik. Kasu honetan, aurreko legegintzaldian jorratutako filosofia berdinarekin jarraitzea erabaki du udalak: bosgarren edukiontzia erabiltza hondakin organikoak birziklatzen dituzten herritarrek %1ko igoera izango dute eta gainerakoek %3,6koa. Etxebizitza hutsen kasuan, %75eko errekarua ezarriko zaie, PSE-EEK eta EH Bilduk EAJk errekarua ezabatzeko proposamena atzera bota ostean. Iaz udalak 22.000 euro batu zituen zerga honen bitartez. Hirigintza planari dagokionez, alderdi guztiek bere poza adierazi zuten guztien oniritziarekin onartu direlako. Unai Larreategi (EH Bildu) aurreko legegintzaldian Hiart Arluziaga alkateak egindako lana goraiatu zuen. Plana behin betiko onartua izan dadin, ingurugiroko memoria eta Lurralde antolaketarako batzordearen txostena eta Aldundiaren oniritzia behar dira. Bestalde, etxebizitzaren barreneko lokaletan etxebizitzak egiteko ordenantza berria ere aho batez onartu da.

Etxegabetzeak, errefuxiatuak eta Emakumeen mundu martxa

Urriaren 15eko udalbatzarrean hiru mozio onartu zituen udalbatzarrak alde guztien oniritziarekin: Soraluze etxegabetzerik gabeko herri izendatzea, Siritatik datozen errefuxiatuei harreta eskaintzeko babes herriaren sarea sartzeko eta Emakumeen mundu martxarekin bat egitea. Datozen hilabeteetan mozio hauetan onartutako hainbat neurri garrantzitsuak ditu udalak.

Desadostasunak Baso bidez egitasmoarekin



Urriaren 15eko udalbatzarra.

Udal gobernua Baso bidez egitasmoan egin duen aldaketa batek sortu du ezadostasuna. Sagar errekarako 3,2 hektarea planera gehitzeko aurreikusita zegoen hitzarmena atzeratu eta aurretik landaketan garbiketarako egitea hobetsi ostean. EH Bilduk kreditu aldaketaren aurka bozkatu zuen. Roke Akizuk inbertsionerako ziren diruak gastu arrunterako erabiliko direla kritikatu zuen. Jabier Garmendiak (EAJ) erabakia arrazoi teknikoengatik hartu dutela adierazi zuen.

Alkarrekin batzarra eta zibismoaren ordenantza

Eguna zehaztu barik baldin badago ere Udalak "azaroaren amaiera aldera" Alkarrekin batzar orokorra egiteko asmoa duela jakinarazi digu. Webgunea eta aplikazioari dagokionez, udal gobernu berriak biak martxan izateko asmoa duela jakinarazi digu "komunikazio teknikoari ez dagoelako daude eguneratu barik baina datorren urtean berriz ere elikatzen hasteko asmoa dugu".

Bestalde, datozen hilabeteetan eremu publikoaren erabilera arautuko duen "zibismoaren ordenantza" berria onartzeko asmoaren berri ere eman du alkateak. Dagoeneko Hirigintza batzordean aurkeztu dute zirriborroa eta "alderdi guztien ekarpenak jaso eta adosteko ahalegina egin ostean" osatuko dute behin betiko ordenantza.

IZAGUIRRE
Igeltseritza

943 75 11 62 • 649 867 289

Belarrak
Loradenda
eta
belardenda

T. 943 75 30 11

ARGAZKI ERREPORTAIA

Orkatzaren ehiza

Irailaren 5ean zabaldu zen ehiza larriaren denboraldia EAEn -basurdeak, azeriak eta orkatzak ehizatzea baimentzen duena- eta zabalik izango da otsailaren 28-ra bitartean.



Herriko ehiztari taldea asteburuero ateratzen da. Iaz, orkatz eta azeri artean, 45 animalia ehizatu zituzten. Aurten 16 orkatz ehizatu dituzte orain arte. Zapatu goiz bateko ehizaldia jarraitu dugu eurekin.



JUNTADIZOA

07:45 Sagar Errekarako sarreran batu dira dozena bat ehiztari, denak gizonezkoak. Gehienak soraluzetarrak dira baina badira eibartarrak eta elgoibartarrak ere. Gazteena Berdaitz Aiastui (35 urte) eta nagusiena Oscar Gallastegi (80 urte).



NORBERE POSTURA

Eguneko "batida" Ibarrola baserriaren inguruan egitea erabaki dute. Ehiztariak euren postuetara doaz. Zakurrak jarein dituzte lepoan zintzarriak lotuta. Alde batetik bestera doaz orkatzak ehiztariaren postuetara eramateko helburuarekin.

SEINALEA ▶

Batida dagoela adierazten duen seinalea jarri dute lurrian, taldetik kanpoko batenbat etorri gero ehizan dihardutela ohartarazteko funtzioa du. Euren taldean ez da inoiz ezer gertatu baina tiratzerakoan zuhurtasunez jokatzea beharrezkoa dela gogorarazten diote elkarri.



◀ POSTUAN ZAIN

Ehiztari bakoitza bere postuan jarri da eta batida amaitu bitartean ez da bertatik mugituko. Zakurren zintzarri hotsak entzuten dira eta ehiztaria adi dago erriflea eskuetan orkatza nondik azalduko.

POSTUAN ZAIN ▶

Lasaitasuna da nagusi orkatzik azaldu ez den postuetan. Tiro hotsak entzun dira urrunean eta orkatz bat hil dutela jakinarazi dute transmisoretik. Ehiztari bakoitzak komunikaziorako transmisorea darama aldean.





◀ PERRETXIKUAK BATZEN

Orkatzaren faltan perretxikuak ez dira txarrak. Oraingoan pinatelak topatu ditu ehizako postuaren ondoan. Gainaldetik orkatz batek burua agertu du baina berehala desagertu da. Ehiztarien hesitik ihes egitea lortu du.

AMAITU DA ▶

12:00 Etxerako ordua. Zakurrei deitzeko korneta jo dute eta etorri direnak erremolkean sartu dituzte. Besteei manta zahar bat jartzen diete eta usaimenaren bitartez bertara jotzen dute eta bertan gelditzen dira ehiztaria bila etorri arte.



◀ HILDAKO ORKATZA

Orkatz bat hil dute, arra, bi urte ingurukoa. Baimendutakoa dela adierazten duen etiketa ezarri diote hankan. Azken urteotan orkatz populazioa asko handitu da eta Aldundiak ez du arazorik jartzen ehiztariei eskatutako etiketak emateko.

HAMAIKETAKOA ▶

Ehiztariak San Andresko soziedadean batu dira hamaiketakoa egiteko. Etxetik ekarritako ogitartekoak jaten dituzten bitartean goizean zehar gertatutakoak kontatu dizkiote elkarri. Eibarko beste ehiztari talde batekin izandako desenkontrua izan dute berbetagai nagusi.



XX. edizioa: azoka eta jaia uztartuta

Urteen poderioz, herriko jai-egunik garrantzitsuena bihurtu da Gaztañerreko azoka. Orain helburua azoka-guneko egitaraua indartzea da, azokak egunaren ardatza izaten jarraitu dezan.

1995ean antolatu zen lehen aldiz Gaztañerre azoka. Udalak eta Debemenek antolatu zuten, beste herri batzuetan egiten zen moduan Sorraluzen ere baserritarren azoka beharrezkoa zela irizita. Hasieratik hartu zuen indar handia azokak, herriko baserritarrek gogotsu ekin ziotelako parte hartzeari, zenbait artisaurekin batera. Urteotan baserriko jardunak behera egin du eta gaur egunean baserritarren eta artisauren postuen kopurua ia parean dago.

Herriko jairik arrakastatsuen

Baserritarren azokari urtetik urtera jai eta kultur arloko ekimenak gehitzen joan zaizkio. 1999an Pil-pileanek herri-babajana antolatu zuen azoka gunean bertan eta arratsaldean erromeria ere bai. Ordutik aurrera, baserritarren azokaren inguruko jai-ekimenak ugartzen joan dira: umeendako jolasak, baba lehiaketa, herri-kirolak, triki-poteoa, erromeriak, babadator pertsonaia, kartel bereziak... Koadrilen artean eta familian baba-janak egiteko ohitura ere zabaltzen joan da eta gaur egunean jate-txeak eta soziedadek gainezka izaten dira egun horretan. Kanpoan bizi diren herritar askok egun hori aprobetxatzen dute herri-ira bisitan etortzeko.

Azokan erostea da baserritarren lana eskertzeko modurik egokiena

Gaztañerre kulturala

Aipatzekoa da azokaren egunaren aurretik eta ostean herrian nekazal eta kultura arloko ekimenak antolatzen hartu den ohitura: hitzaldiak, ikastaroak, emanaldiak, dastaketa bereziak etab. Urteko argitalpen nagusiak aurkezteko ere baliatzen da gaur egun azokaren bueltako garaia. Pil-pileanek Gaztañerre kulturala



Gaztañerreko azoka-gunea.

izena ematea erabaki du aurtan. Baina ez da ahaztu behar Gaztañerre eguna dela ekimen guztiei izaera bateratua ematen dien jatorrizko eguna. Gaur egun ere, egun horretan gaztaina erreak jateko tradizioak indar handia du herrian: tabernetan, elkarteetan, Gaztetxean... banatzen dira.

Azoka-gunea indartzeko ekimenak

Baserritarrek herritarrak azoka-gunera erakartzeko zeozer egiteko beharra azpimarratu zuten urriaren hasiera azoka antolatzen udaletxean egin zen bileran. Udalak eta Debemenek bat egin zuten behar horrekin, eta datorren urterako gogoeta egitea proposatu bazuten ere, baserritarrek eta eragileek zenbait ekimen aurtan bertan martxan jartzearen alde egin zuten eta azkenean ondorengo aldaketak ezarriko dituzte aurtan: tablatua txikitu eta jana eta edaria eskaintzeko guneari lekua egitea, sagar zukua

egin eta dastatzeko ematea... Datorren urterako azoka gunea indartzera bideratutako neurri gehiago lantzeko konpromisua hartu du Udalak.

AZOKA EGUNA ZERGATIK DA BETI AZAROKO BIGARREN ZAPATUAN?

Gaztañerre azoka beti bigarren zapatuan ospatzen da, antolatzen ere referentziatzen hartu zen eguna Gaztañerre eguna izan zelako. Plaentxian Gaztañerre eguna Animen egunetik (azaroaren 2a) konstatzen hasi eta bigarren astelehenan ospatzen da. Ohiko nahastea Animen eguna eta Domusantu eguna egun berean ospatzen direla pentsatzen dator baina Domusantu azaroaren 1ean ospatzen da eta Animen eguna azaroaren 2an.



ARMENDIA
JATETKEA

Ezozí Auzoa 11
20590 Sorraluze
T. 943 75 10 02

SUKALDARITZA
TRADIZIONALA



Griado
Fruitategia Urdaitegia

Kalebarren, 12
Tel.: 94375 12 41

“Ezagutzen duenak badaki genero ona zein den”

Mertxe Balzola eta Marisol Ariznabarreta

Guenetxoko Mertxek (1942) eta Obeko Marisolek (1945) Gaztañerre azokaren edizio guztietan parte hartu dute. Aurten ere jarriko dute barazki postua.

Bizi osoa baserriko lanetan eman duten bi emakumeok herrian baserrietako barazki salmentarekin eurak ezagutu duten bilakaeraren berri eman digute.

Non ezagutu zenuten lehen merkatu-plaza?

Erregetxeko eraikinean zegoen. Asteko sei egunetan -astelehenetan ezik- bajatzen ginen astoarekin. Sasoi hartan asko saltzen zen, herrikoa bakarrik zegoen eta.

Zelakoa zen?

Handia. Herriko baserritarrek ino batera kanpokoak ere izaten ziren orduan. Goizeko seiretarako postua hartzera joaten zirenak ere baziren. Osintxutik trenean etortzen

ziren eta Eibartik, Elgoibartik eta Markinatik astoarekin.

Regatea egingo zen orduan?

Bai. Hori zen ohitura. “Azalga txortia errial bixan emon-gostazu?” eta erantzuna “bale” bazen ondo eta bestela ere bai. Ez da hori horren gauza txarra! (dio Marisolek. Mertxek kopeta ximurto du). Niri urtero etortzen zait bikote bat azokara eta galdetzen didate ea ogia salduko dieran merkexeari, nik ezetz (dio Mertxek).

Zergatik egin zuen behera plazak?

Kanpotik generoa heltzen hasi zenean erosteko ohiturak aldatzen hasi ziren. Ero-



Marisol eta Mertxe.

sotasunagatik asko. Baserrietako gizonak lanera lantegietara jeisten hasi ziren eta baserrietako martxa emakumeen esku gelditu zen.

Zelako estimazioa du gaur baserriko generoak?

Gaur egun ere pixkat ezagutzen duenak badaki zein den genero ona. Itxurari begiratzen diote askok baina benetakoak barrukoak da.

Aurtengo omenduak Maria Irusta (1928) eta Pilar Belategi (1928)



“Sasoi keixak eta aurrera!”

Aurten bi emakume baserritar izango dira azokan omenduko dituztenak: Aritzako Maria eta Armendiko Pilar. Biek ala biek bizitza osoa baserrian eman dute. Maria Markinakoa da jatorriz. Bizitza gutzian joan izan da plazara, Markinan bizi zela Ondarrura joaten zen eta Aritzara

etorri zenean Erregetxeko plazara. Ora in urte batzuk, alabak (Ezozik) errelebo hartu zion arte jarraitu du. Babak urkultzen harrapatu dugu argazkia ateratzera joan garenean.

Pilar 1998ra arte jeitsi izan zen plazara. Baserria berritu eta jatetxea konpondu zuten urte horretan eta orduan laga



zion. Gaztañerre azokarik ez du ikusi, beti jatetxean lanean jardun izan du eta. Aurten esperantza du buelta bat emateko. Aza eta porruak hartuta ortutik zertorela topatu dugu argazkia ateratzera joan garenean.

“Lanerako jaixotakua nok ni” esan du Pilarrek heldu orduko.

sutarako egurra salgai
pago-egurra, haritz-egurra...

SUMA
basolanak

mug. 635 71 34 08



Gazteak indarrean

Lehen sektorean jarduteko apustua egin duten lau gaztek postua jarriko dute aurtengo dute aurtengo azokan. Ilusioz eta indarrez beteta topatu ditugu denak.



Itxoste
Ainhitze Elizburu eta Jon Martinez

Zeleta baserrian dute ekoizpen-gunea eta mermelada eta zukuak ekoizten dituzte Itxoste markarekin. Atzerrian izandako bizipenek bultzatuta erabaki zuten beraien produktu propioak sortu eta merkaturatzea.

Lehengaia etxekoa

Aittitta-amamek landatutako fruta-arboletatik abiatuta berriak landatu dituzte azken urteotan. Hasieratik garbi izan dute produktu elaboratuak eurek landatutako fruituekin ekoiztiko dituztela.

Urte aberasgarriak

Orain arte mermeladak bakarrik egin izan dituzte (marrubia, mugurdia, masusta, pikua, madaria, sagarra...) baina aurten lehen aldiz zukuak ere egin dituzte etxeko sagar eta madariekin.

Azoka izaera indartu beharra

Baserritarren lana gehiago baloratu behar dela uste dute. "Gaztañerre azoka jai egunarekin lotzen da eta garrantzi handiagoa eman beharko litzaiok azokaren izaerari. Guretzat herriko azoka oso berezia da Itxoste produktuak bertan saldu ditugulako lehen aldiz.

Egindakoa elkarbanatzeko aukera

Aurtengo zapore eta nobedade berriak aurkeztuko dituzte azokan. "Egunerokoan harremanik ez dugun pertsonenkin egoteko aukera ematen digu Gaztañerreko azokak".



Belaitz Hornigaiak
Iraitz Ibarzabal eta Isabel Camacho

Familia giroan garatutako negozioa da Belaitz, bikote baten afiziotik sortutako ofizioa lehen sektoreari "merezi duen bultzada emateko" intentzioarekin sortu dutena

Afiziotik ofiziora

Azken urteotan Iraitz eta Isak afizio modura bizi izan dute nekazaritza. Bizi izatera herrira etorri zirenan behar bat atzeman zuten eta afizio zutena modu profesionallean lantzea erabaki dute.

Harrera ona herrian

Sei hilabete dira hornikuntza zerbitzua martxan jarri zutela eta oso harrera ona izan ei dute: "herriko jendeaz gain inguruko herrietakoak ere badatoz, gero eta gehiago". Badakite pentsu alorrean ohi-turak aldatzea lan zaila dela baina beraiek gertuko aukera bat eskaini nahi dute herrian.

"Gaztañerre parranda baino gehiago da"

Jai-giroko ekimenak gustoko izan arren, uste dute azokak indar gehiago izan beharko lukeela. Horrekin batera, azpimarratzekoa iruditzen zaie gero eta gazte gehiago ari direla baserritik bizitzeko ahaleginean.

Belaitz ezagutarazteko helburua

Eskaintzen dituzten produktuak erakusteko postua jarriko dute azokan. Zerbitzuen inguruko informazioa eta lan-filosofia elkarbanatu nahi dituzte bertan.



Egotza Gazta
Nagore Martinez

Betidanik maite izan ditu ahuntzak. Orain bost urte Fraisoroko nekazal eskolan eman zuen izena eta gaur egun ahuntz-gazta egiteko ekoizpen-gunea du Egotza baserrian.

"Zure lana baloratzea izugarria da"

Nagorek dena zeukan ikasteko orain bi urte Alpeetako arrazako ahuntzak baserriera ekarri zituen. Orain dela hilabete batzuk hasi da gazta saltzen. "Lan gogorra da baina harrera ona izan dut eta pozik nago". Etorkizunera begira gazta hobea egitea du helburu.

"Gaztañerren baserritarren lana baloratzeko da"

Bere ustez, baserritarren lana bultzatzeaz gain bertako produktuari merezi duen lekua ematen zaio azokan. "Beste herri batzuetan nahiago izaten dute taberna betetzea bertako produktuak baloratzea baino".

Artisau erako produkzioa herrian

Herrian bertan dagoen nekazal-ekoizpenik ez balegoko jendeak produktuen bila kanpora jo beharko lukeela uste du. "Artisau eran eta eskuz egindako produktuak nahiago ditu jendeak, hobek direlako".

Egun berezia eta garrantzitsua

Azoka eguna heltzeko desiatzen dago: "heretzat egun berezia eta garrantzitsua izango da, Egotzako gazta herrian ezagutarazteko aukera izango dudalako".




Gaztañerre kulturala

Aurten ere nekazaritzarekin eta kulturarekin lotutako hainbat ekimen antolatu dira Gaztañerre azokaren bueltan.

AZAROAK 5, EGUENA

Liburuaren aurkezpena



"Isiltasuna hausten. 36ko gerra Soraluzean"
19:00etan antzokian
Antolatzailea: Soraluze 1936

AZAROAK 10, MARTITZENA

Hitzaldia: Abereen elikadura

19:00etan antzokian.

Ostean luntxa.

Antolatzailea: Belaitz nekazal eta industri etxea

AZAROAK 11, EGUAZTENA

Talo ikastaroa



18:30ean Ibai Eder elkarte
Antolatzailea: Pil-pilean

AZAROAK 12, EGUENA

Hitzaldia: EH-KO. Agroekologia laborarien identifikatzailea

18:00etan antzokian

Antolatzailea: Bertatik bertara (Alkarrekin)

Pintxopote tematikoa

Antolatzailea: Bizikale

AZAROAK 13, BARIXAKUA

Gartzelari buruzko gogoeta musikatua
22:30ean, Gaztetxean

Antolatzailea: Sabin askatu! Espetxeak apurtu!

AZAROAK 16, ASTELEHENA

GAZTAÑERRE EGUNA

Euskalzaleen afaria



21:00etan Ibai-eder elkarte.

Antolatzailea: Pil-pilean eta AEK

HITZALDIA

EHKOLEktiboko kideek Agroekologian oinarritutako ekoizpena zer den azalduko dute.

EHKOLEKTIBO elkarte Euskal Herriko agroekologian diharduten baserriarrak eta herritarrek batzen dituen kolektiboa da. 2007. Urtean sortuz eta elkartearen helburua agroekologian oinarritutako nekazaritza eredu ekologikoa identifikatu eta desberdintzea da.

Azaroren 12an eskainiko duten hitzaldian ekoiz-



pen agroekologikoa desberdintzeko helburuarekin martxan jarri duten identifikatzailea aurkeztuko dute: EHKO marigorringoa. Identifikatzaile honek hobekuntzaren aldeko konpromisoa duten etxaldeak identifikatzen ditu.

HITZALDIA

Nantako albariarietako animalien elikaduraren inguruan jardungo dute.

1968. urtetik animalien elikaduran lanean ari den Nanta konpainia ezagutzeko aukera izango da Belaitz etxeak azaroaren 10erako antolatu duen hitzaldian. Bertan animalien elikadurarako erabiltzen diren lehengaiekin egiten diren pentsuen inguruko argibideak emango dituzte. Animaliek elikaduraren ondorioz jasaten dituzten



arazoen inguruan ere berba egingo dute. Hizlariak bi albaritari izango dira: Jesus Comenge Gracia (Untxi eta hegaztietan aditua) eta Jaime Ferrando Castillo (Arion elikagai enpresako arduraduna). Hitzaldi-tertulia formatua izango du eta ostean luntxa izango da.



"Ikuspegi integral batetik landatzen, birsortzen, sukaldatzen & zabaltzen"


Mermelada, konpota eta zuku ekologikoen ekoizpen artisaia

ITXOSTE Permakultura Baserria
Zeleta Baserria
info.itxoste@gmail.com
637262160 / 665239665

Motzean

Jokin Muñoz 2. Madrilgo triatloian

10 ordu eta 57 minutu behar izan zituen irailako lasterketako lanak (3,8 km igerian, 180 km bizikletan eta 42 km korrika) amaitzeko. Bigarren egin zuen 25etik 29 urte bitartekoen mailan eta 40. orokorrean. Jokinek adierazi digunez "bizikleta-proba izan da gogorrena baina gustura nago egindakoarekin".



Soraluzeko judokak nazioarteko txapelketan

Ukaldi judo klubeko gazteek Eibarren, urriaren 17an, ospatu zen XL.nazioarteko txapelketan parte hartu dute. Bertan izan ziren Ander, Beñat, Gaizka, Oier, Yago eta Joel Juan Ramon eta Garikoitz entrantzaileekin.



Finalista eguna San Andresen

Mendi taldeak urtean zehar mendian ibili diren umeak saritu zituen joan zen zapatuan San Andresen. Saritueta gazteenak 3 urte ditu eta zaharrenak 12.



Futbol festa zapatuan Ezozin



Soraluzeko lau taldeek etxean jokatu dituzte partidua. Goizeko 10:00etan infantilen txanda izango da Burumendiren kontra eta 12:00etan Jubenilek Zumaiako izango dute aurkari. Arratsaldeko 15:30etan Sora "A" taldea Lagun Onak-en kontra arituko da eta berriz ere lidertza lortzeko 3 puntuak irabazi nahi dituz taldeak. Azkenik, Sora "B"-k Eibarko Armañak taldea hartuko du 18:00etan eta pasa den asteko liskarrak (Aretxabaletan partidua bertan behera laga behar izan zuten) alde batera lagata talde moduan irudi ona ematea izango dute helburu.



Urolaren aurkako partidua.

Mikelek irabazi du Mendaroko apustua

Mikel Hernandezek 56 minutu behar izan zituen Gantxipixako (Mendaro) tontorrera heltzeko. Korrika-proban aurre hartu zion aurkariari. Aizkoran ostera mendaroarra nagusitu zen baina butanoarekin Mikelek harrapatu eta pasatu egin zuen ezinean gelditu zen mendaroarra eta. Mikelek berrehun euro eta afaria eskuratu ditu.



Kontulan 
 aholkularitza

Errenta aitortpenak • Zerbitzu juridikoak • Administrazio lanak • Trafikoko burokrasiak
 Lan-arloko aholkularitza • Enpresen konturazio/diskusioak • Kontabilitatea • etab...

Santa Ana 13 - 1. csk. 20590 Soraluze - Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 01 82

MENDIZABAL
 okindegia

Egurrezko labean egindako ogia

Kalobarren, 10
 Tel. 943 75 20 91

Baltegieta, 6
 Tel. 943 75 13 99



Kantu-afaria Santa Zezilia ospatzeko



Abesbatzako kideak.

Ezoziko Ama abesbatzak berrikuntza dakar aurtengo Santa Zezilia eguneko ospakizunetarako. Azaroaren 21ean, zapatuan, kantua ardatz duten eta kantuzaleei zuzenduta dauden bi ekimen egingo dituzte: kalejira iluntzean eta kantu-afaria gero. Bi ekimenotan era-

biliko duten kantu-errepertorioa abesti ezagunekin osatuko dute, gehienak euskarazko kantuak izango dira (Baldorba, Mendian gora, Lau teilatu, Xalbadorren heruotzean...) eta gutxi batzuk erdarazkoak (Mañanitas, Malagueña salerosa...). Kalejira arratsaldeko 19:00etan hasiko dute, Plaza Zaharretik abiatuta, eta herriko tabernetan ibiliko dira gero. Kalejiraren ostean kantu-afaria egingo dute Txoko tabernan. Afarria 22:00ak aldera izango da eta abesbatzakoek bertaratzeko gonbitea egin diete herriko kantuzale guztiei. Izena emateko ezozikoamaabesbatza@gmail.com helbidera idatzi behar da edo 658726266 telefonora deitu edo Txoko tabernan bertan eman. Afariko menua: entsalada, oilaskoa eta postrea izango dira, 15 euroan. Abesbatzak kantutegia prestatuko du abestien letrekin.

Bi film ikusgarri azaroan



Amama filmaren kartela.

Azaroan Ostegunetako pelikulak Azikloaren barruan maila handiko bi film proiektatuko dituzte. "El metodo Arrieta" (Jorge Gil. EH 2014) izango da lehenengoa, azaroaren 5ean eskainiko dena, gazteleraz. Gorputzak ezarritako mugak gainditzeko bi ahizpek asmatutako komunikazio sistemaren inguruak kontatzen ditu nazioarteko sona lortu duen dokumentalak. Hamabost egun beranduago, azaroaren 19an proiektatuko da "Amama" (Asier Altuna. EH 2015). Baserrira ulertzeko bi moduk talka egiten dutenean gertatzen dena kontatzen du Amama-k. Kandido Urangak jokatu du baserriko aitaren rola, eta Klara Badiolak haren emaztearena. Emanaldiak gaueko 9etan hasiko dira.

Motzean

Gartzelari buruzko gogoeta musikatua

Markel Ormazabalek eta Oier Gonzalezek "Burdin hariak eta plastikozko koilarak (maitasun lubrikatua): gartzelari buruzko gogoeta musikatua" errezitaldia egingo dute Gaztetxean, azaroaren 13an, gaueko 22:00etan. "Hautatutako testu, kantu eta irudien bitartez gartzelako erloju-goilare-izararte-izaretatik bidaia egitea proposatzen dizuegu solasaldi musikatu eta gogoeta partekatua honen bitartez". Sabin askatu! Espectxeak apurtu! Ekimenak antolatuta du errezitaldia.



Bertsolarien finalerako autobusa

Gipuzkoako bertsolari txapelketaren finala abenduaren 19an, zapatua, jokatuko da Donostiako Ilunbe zezen-plazan, arratsaldeko 17:00etan hasita. Finalera joateko sarrerak (20 euro) eta autobus-txartelak (10 euro, 8 elkarteko bazkideendako) salgai izango dira abenduaren 5era bitartean Pil-pilean euskara elkartean.

Sarrerak erosteko:

943 751304 /euskara@pilpilean.com




Zorion agurrak



Jokin Muñoz
Irailaren 25ean, 27 urte.
Zorionak eta segi orain arte moduan. Muxu haundi bat. Familixakuen partez.



Mikel Iñurrieta Arana
Urriaren 8an 59 urte.
Muxu haundi bat.
Etxekuen partez.



Naia Intxaurbe
Urriak 17
Muxu haundi bat.
Etxekuen partez.



Ekain Ariznabarreta Jauregi
Urriaren 19an 3 urte
Zorionak mutil haundit! arraitu beti bezain jator!
Etxekoen partetik.



Aitz Arluziaga Mendizabal
Urriaren 27an 4 urte
Zorionak!
Etxekoen partez.



Ibon Uriarte
Urriaren 24an urtebete.
Zorionak!
Etxekoez partez.



Unai Prol
Urriaren 16an, 24 urte.
Zorionak! Pastelak zeure kontu! Kuadrilakuen partez.



Markel Lizarralde
Azaroaren 10ean, 4 urte.
Zorionak eta muxu potolo bat txapeldun!
Familixakuen partez.



Iñaki Larrañaga
Irailak 9
Segi halakotxe pertsona edarra izaten.
Etxekuen partez.



Berdaitz Aiasuai, Joseba Exposito eta Koldo Heriz
Zorionak hirukote!
Kuadrilakuen partez.

Urte askotarako!

Zoriondu laqunak eta senitartekoak, lau bide dituzu Pil-pileanen bidez zoriontzeko:

- Watsapa **605706086** zenbakira.
- Webguneko **www.plaentxia.eus/zerbitzuak/zorion-agurrak** helbidean sartu.
- Mezua **aldizkaria@pilpilean.com** helbidera.
- Lokalera ekarri 10.30etik 13:00etara bitartean.

Jaiotakoak



Suhaila Kaddouri Arias



Suhaila Kaddouri Arias
Urriaren 14an jaio zen Mendaron

Oharrak

Mesedetako jaietako zozketa

Sari nagusia

Sei jatordu Txurruka jatetxean (210 euroko balioa)

Zenbaki saritua: 9350

Ordezkoa: 1022

Sariduna: Ez da azaldu.

Bigarren saria

Lau jatordu Txurruka jatetxean (140 euroko balioa)

Zenbaki saritua: 2652

Sariduna: Jesus Irisarri

KLB6

Kupoi hau moztuta deskontua dendan

KLB6
Sara jauntziak

AURREZTU ENERGIA

Berotu ebea
**BIOMASA ETA
EGURREZKO**
galdarekin

fontaneria
San Andres
iturgintza

639 179 696 • sanandresiturgintza@gmail.com

ba al zenekien...



Iturria: sustatu.eus

Halloween euskal ohitura dela

Halloween berbak Anima Guztien Gaba esan nahi du eta Euskal Herrian ere ospatzen zan. Animen Egunean -urrian 31 leku batzuetan eta azaroaren 2a hemen inguruan), kalabazak edo arbiak ortuetatik harrapatu, hustu, kandalak barruan sartu eta ingurukuak bildurtzen ibiltzen ziren gazteak. Etxeko trapu zaharrak jantzita ibiltzen ziren, bildurra emateko moduan aurpegiak tapatuta. Neguko jaietako bat da, Erdi Arotik Europa osoan ospatu izan dena, eta etxerik etxe eta baserri baserri ibiltzen ziren eskean, diru, jateko edo goxokiak batzen, gabonetan, Santa Agedetan edo aratosteetan egitten den moduan.

Esaera zahar bat oinarri, "Xanduli, Manduli, kikiriki... emon goxokiak guri!" esanaz ibiliko dira ume eta gazte eibartarrak aurten. Sorluzetarrak ere animatuko gara?

ESKELAK JARTZEKO: 605 706 086

Hilaren azken barixakuan argitaratuko da aldizkarian.

Eskelaren prezioa:

- 30 € (txikia)
- 60 € (luzea)

Pil-pilean:

irakurriena
Sorluzen



OROIORE Hileta zerbitzuak

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

- Zerbitzu etengabea 24 ordutan
- Ez onartu besterik gabe zure asegu-konpainiak esaten dizun hileta zerbitzua, jakin ezazu nahi duzun hileta zerbitzua aukera dezakezula beti.
- Guztiarekin arduratzen gara: eskelak, lorak, errausketak, hilobiratzeak, beilatokia, tramitazioak etab.

617442155 zenbakira deitu eta berehala jarriko naiz zurekin harremanetan

ESKELA DOAN
PIL-PILEAN HERRI ALDIZKARIAN


Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin eta nire helburua familiar ahalik eta tratunik beroena hurbilekoena ematea izango da.

LIBURU AURKEZPENA

ISILTASUNA HAUSTEN

1936KO GERRA SORALUZEN

LA GUERRA DE 1936 EN SORALUZE



AZAROAK 5
19:00ETAN
ANTZOKIAN

SORALUZE 1936
LAN TALDEA

Soraluze

XX. Gaztañerre azoka



Azaroak 14

- 09:00etan Azokaren irekiera
- 10:00etan Umeendako jolasak Kukumixorekin, kiroldegian.
- 11:00etan Txistularien kalejira
Gazteen herri-kirolak Plaza berrian
Zukuak egiteko prentsa hidraulikoaren erakustaldia Azokan
- 12:30ean Ekitaldia azokan: Bertsolariak, omenaldia, dantza-saioa eta sari-banaketa.
- 15:00etan Herri-babajana Plaza zaharreko karpan.
(Txistulak: urriaren 30etik aurrera Iratzon eta Pil-pileanren).
- 19:00etan Erromeria Karpan
- 22:30ean Erromeria Fun&Gol-rekin Gaztetxean

